

Tomas Akinotar Donearen gorespen.

Eguzkiyaren alde gabilta:
maitatzen degu arren ilincha:
jakinduketa
eguzkiya da:
zoramen-beta
errañukada;
berdin jakintsu apalen itza.

Zeñek maitatzen eztu goizian
argi-matasaz datorrenian,
urrestaturik
eguzki-galda?
Zoramentsurik
ezer bai alda
argi-surtzeta daukagunian?

Jakinbidea urre-matasa
barrumbez dala, goguak dasa;
t'adimenari,
kolkoz jariyo,
ase-janari
eman oi diyo:
t'a! bera achitzen balitz erraza!

O jakinduri, eguzki zale,
nagokitzu-bai, zure maitale....
non dezu lurra?
noruntz echia?
zure susmurra,
t'argi bidia
nondik artezka billa nezake?

Etzaude noski zapuzkiyetan,
sasi-jakintzu baldarren ketan;
goibelkopeta,
puzturik arro
t'aundi uste-ta....
ainbatez charro
bazenetorkit aize betetan.

Jakinduriya zagu lastana
mamitik badu ontara lana:
izan apaltsu,
jechi gandorra,
guziz alaitsu
aitortu zorra,
t'echeratu maiz Jainkoagana

Etzera sumitz, kañabel makill
limurgarriya noruntz erabill;
ez uztel-gaya
t'aldarriya,
baizik tantaya
arbol orniya,
t'orrenchen billa larritsu nabill.

Zugazti ortan, ostoak tarte,
betorkit neri zeru-cholarte,
jaiki-ta goiztar
orche pachadan,
egiya maiztar
izan dezadan,
alík Jainkoa ikuzi arte.

Arbol orrenchen eraintzalea
bego gorospen aundiz beteal
Nori eskerra
adiyerazo
arbol ederra
jarri dulako?
eskerrak zuri Tomas Donea !

Zuri eskerrak! Jakinduriyan
berdiñik ezta iñor agiyan;
Jainko-onduan
iturburuban,
neurri osuan,
edan zenduban
t'azalkai dago Summa guziyan.

Zure Summa da zugatz tantaya:
lur indurtsuban dauka sustraya:
iñork jarraitu
egiya nai-ta,
maisú ta aita
zedorri zaitu,
t'ase lezake dadukan naya.

Zure auziyaz askatzen dira,
eraketurik argi-erdira,
gizon-artian
irichikunak:
datozenian
korapildunak,
guziyok gaude zuri begira.

Zenbat lur berri zure mugetan!
naro ta eder alorkunetan!
zenbat atsegin!
zenbat erraño,
dago zurekin
orainchendaño,
legortze-eztiran zelai oyetan.

Beste argiyak beren amaitza
etzaye noski batere gaitza.....
zure argiyak,
betiraun jabe,
gizon guziyak
bat utsi gabe,
eutsi t'ase ta apaindu gaitza!

RAMÓN INZAGARAY